BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4158

AGINDUA, 2011ko ekainaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Irunen (Gipuzkoa) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena emateko dena.

Asociación Pedagógica Mendibil entitatearen ordezkariak baimena eskatu du Irunen (Gipuzkoa) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko. Aztertu dugu horri dagokion espedientea.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimena ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE), Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE), hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren ordenazio orokorra ezartzen duen abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretua (2007ko urtarrilaren 3ko BOE), hezkuntza-sistemaren barruan lanbide heziketaren antolaketako alderdi jakin batzuk garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretua (maiatzaren 8ko BOE), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusi ondoren, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea 2011/2012 ikasturtetik aurrera honako ikastetxe pribatu hau irekitzeko eta jardunean jartzeko:

Kode zenbakia: 20014222.

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Centro de Formación Mendibil Formazio Zentroa».

Titularra: Asociación Pedagógica Mendibil.

Helbidea: Letxunborro hiribidea, 58.

Udalerria: Irun

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Baimentzen diren irakaskuntzak:

Lanbide Heziketa:

• Familia: Irudi pertsonala.

– «Ile-apainketa»ko erdi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: Ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko eta arratsaldeko txandetan.

– «Estetika eta Edergintza»ko erdi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: Ziklo 1, 20 ikaspostu, goizeko eta arratsaldeko txandetan.

2. artikulua.– Ikastetxeak indarrean dauden legeak bete beharko ditu, ikaspostuen kopuruari, eskola-unitate bakoitzeko gehieneko irakasle/ikasle erlazioari eta agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea, eta agindu honetan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 7a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.